

**ZINEMA.** Bi Oscar irabazi zituen, eta ehun eta berrogeita hamar film baino gehiago utzi ditu

# Hollywoodeko polifazetiko

Anthony Quinn aktorea herenegun hil zen, Bostonen, pneumoniak jota, 86 urte zituela

Erredakzioa | DONOSTIA

Anthony Quinn aktorea pneumoniak jota hil zen, herenegun, Bostongo Brigham ospitalean, 86 urte zituela, hamazazpi egun zaintza berezian igaro ondoren. Bere bizitza bezain luzea eta oparoa izan da aktore ibilbidea, eta gutxi dira berak adina rol betetako aktoreak. Herri eta izaera askotakoa izan da bere film zereenda luzean.

1936an egin zuen lehen filma, eta urteak egin zituen gaizkile, gangster eta indiarrarena egiten. Gizon altu eta handiak aurregiera aproposa zuen rol horietarako, baina Broadwayen egindako lan txiki batek aukerak zabaldu zizkion, hamaika roli bidea eginez. 1952an Elia Kazanen *Viva Zapata* filmean Emiliano iraultzailearen anaia-aren rola betetzegatik bigarren mailako aktore onenaren Oscarra eskuratu zuen, eta harrezkerotik ez zen geratu. Bigarren Oscarra 1956an jaso zuen, *Lust for Life* Vincente Minelliren filmean egindako lanagatik, hori ere bigarren mailako aktore gisara. Bi aldiz egon zen izendaturik aktore onenaren Oscarra eskuratzeko. 1957an, George Cukoren zuzendaritzapean egindako *Wild is the Wind* filmagatik, eta 1964an Michael Cacoyannis-ekin *Zorba the Greek*-engatik. Azken hori zuen film maiteena. Bera Zorba bezalakoa zela esaten zuen, «pasioz eta indarrez beteriko gizona».

## Gailurra, 50ekoan eta 60koan

Ehun eta berrogeita hamar film baino gehiago utzi ditu, eta horietarik asko, aipagarriak. 40eko hamarkadan, *The Ox-Box Incident* Williame A. Wellman zuzendariarekin egindakoa filmarekin, arrakasta handia izan zuen, baina 50eko eta 60eko hamarkadetakoak ditu ezagunenak eta onenak: *La Strada*, *Notre-Dame de Paris*, *Last Train From Gun Hill*, *The Guns of Navarone*, *High Wind in Jamaica*, *Barabbas*, *Lawrence of Arabia* eta beste hamaika.


1915ean jaio zen, Chihuahuan (Mexiko). Aita irlandarra zuen eta ama azteka, biak Pancho Villaren aldean borrokatutakoak. Berak iraultzaile odola zuela esaten zuen beti. El Pasora joan ziren gurasoak bi urte zituela, Texasera, eta emigranteek lan egiten zuten lurretan batetik bestera igaro zuen haurtzaroa, Kalifornian. Zineman hasi au-



Anthony Quinn, Donostiako zinemaldian, 1995an. Ohorezko saria eman zioten, ibilbide oparoagatik.



Raoul Walshen *The Warm in His Arms* filmean, Gregory Peckekin.



J. Lee Thompsonen *The Guns of Navarone* (1961) filmean.

retetik lan asko egin zituen. Arkitektura ikasten ere hasi zen; baina, ahoan zuen akats bati esker, ahoskatzen ikastera joan eta bizitza norabidez aldatu zion. Antzerkian hasi zen.

Estatu Batuetako nortasun agiria 1940an eskuratu zuen. Urte hori baino lehenago filmetako gaiztoa zen, baina izaera horrek ez zuen bere bizitzarekin zerikusirik, seduktoea baitzen.

## 'ZORBA THE GREEK'

**Aktore onenaren saria eskuratzeko izendaturik egon zen film horrengatik. Maiteena zuen. Zorba bezalakoa zela zioen**

Hiru emazte eta tartean maitale asko izandakoak, hamahiru seme-alaba izan zituen ezkontza haietatik. 1937an ezkondu zen lehen aldiz, Katherine De Mille-ekin, Cecil B. De Mille zuzendariaren alabarekin. 1965ean banandu ziren. Urte batzuk geroago Quinnekin onartu zuen emaztea ezkondu eta egun berean jipoiu zuela, birjina ez zela konturatu zenean. Izaera hark iskanbila bat baino gehiago eragin zion.

60ko hamarkadaren hasieran Erroman *Barabbas* egiten ari zela, Iolanda Addolorirekin maitemindu zen. 1966an ezkondu ziren eta 1997an banandu. Urte hartan bere semeetako batek salatu egin zuen, bere ama jotzen zuelako. Kathy Benvinekin ezkondu zen urtebetera, eta bi seme-alaba izan zituzten.

Anthony Quinnen aktore lanak gainbeheran zihoazen bitartean, beste arte jardura bartzuetan ezarri zuen bere indarra. Umetatik, margotzea zen bere beste pasioetako bat, eta pintore eta eskultore gisara egindakoengatik onspen handia lortuta hil da.

## LITERATURA

**Ahaide nagusien borroka islatu ditu Martinez de Lezeak bere azken nobelan**

Estibalitz Ezkerra | BILBO

Iazko azokan, *La Herbolera* nobela salduena izan zela eta, Zilarrezko Luma jaso zuen atzo Toti Martinez de Lezea idazleak. Hunkiturik, Gasteizkoak eskerrak eman zizkien irakurle guztiei. «Sari hau ez da ospetsua, ezta ekonomikoki indartsua ere. Baina, hala ere, gaur egun aurki daitezkeen sari guztiak baino askoz garrantzitsuagoa da, irakurleek beraiek ematen baitute. Eta horixe da idazleak bilatzen duena: bere libururak irakurriak izan daitezela».

## Ahaide nagusien borroka hizpide

Bestalde, Martinez de Lezeak bere azken nobela aurkeztu zuen: *Señor de la guerra*. Aurreko liburua bezala, Erdi Aroan kokaturik dago oraingo istorioa ere, eta garai haietan Euskal Herrian ahaide nagusien arteko borroka islatzen ditu. «Nobelak euskal gizarte feudalararen analisia egiten du, eta, era berean, beren anbizioa zela-eta herria gerrara eramaten zuten jaunena aztertzen du. Dena den, liburuan jaunak ez ezik jopuak eta emakumeak ere agertu egiten dira, garai hartan gizartetik bazterturik egon arren garrantzitsuak izan baitziren».

Arrasateko hiribildua erre baino zortzi urte lehenago hasten da *Señor de la guerra*, 1435ean hain zuzen ere. Hogei urte besterik ez dituen Gomez Gonzalez de Butronek Butroi, Muxika eta Aramaioko jaurerriak oinordetzan hartu ditu. Bere adin bereko Juan Ruiz de Abendaño, Arratia eta Legutioko jauna, etsai sutua du eta hurrengo 13 urteak borrokan igaroko dituzte. Gatazka horren guztiaren erdian, Osanek eta Diegok etorkizun hobe batekin amestuko dute.

*Señor de la guerra* Toti Martinez de Lezearen laugarren nobela da. Lehenago *La calle de la juderia*, *Las Torres de Sancho* eta *La Herbolera* argitaratu ditu.